



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2026 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 29koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritza-ustategietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2026rako deialdia onartzen dira.

Erakunde onuradunak	Nekazaritza-ustategien titular diren pertsona fisikoak eta juridikoak
Diruz lagun daitezkeen jarduerak	Nekazaritza-ustategietan inbertitzeko laguntza
Aurrekontu-zuzkidura	5.948.000 euro
Lor daitezkeen gehieneko zenbatekoa (belaunaldi-erreleboa izan ezik)	75.000 euro/NLU, nekazaritzako ustategiaren benetako NLUetara egokituta. 50.000 euro 5 f) oinarriko pertsona edo erakunde onuradunek
Emateko araubidea	Norgehiagorik gabeko prozedura
Aurkezteko epea	2026eko otsailaren 16tik 2026eko irailaren 16ra
Kontaktua	Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Landa Garapenerako Zerbitzua

Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren bidez, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza-kategoria deklaratzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Erregelamendu horren bidez, landa-garapenerako politika bultzatu nahi da, NPERen zuzeneko ordainketak eta merkatu-neurriak laguntzeko eta osatzeko, eta landa-garapenerako politika gauzatzeko har daitezkeen zenbait laguntza zehaztu eta ezartzen dira.

Landa-inguruneen inbertsioak 2026an sustatzeko neurri bat eduki behar denez, beharrezkotzat jotzen da foru finantzaketarekin bakarrik finantzatzeko laguntzen deialdi bat egitea 2022/2472 Erregelamenduaren babesean eta araupean. Deialdi hori 2029ko abenduaren 31 arte legoke indarrean.

Zehazki, foru dekretu honetan araututako laguntzak bat datoz III. kapituluko 1. ataleko 14. artikuluan jasotako laguntzekin, lehen mailako nekazaritza-ekoizpenari lotutako nekazaritza-ustategietarako laguntzak baitira. Era berean, aipatutako erregelamenduak ezarritako jarraibideak bete dira diruz lagundu daitezkeen kostuei eta laguntzen intentsitateari dagokienez.

Laguntza horien xedea da, batetik, nekazaritza-ustategien egitura modernizatzea eta ekoizpen-prozesuetan teknologia berriak sartzea, ustategien bideragarritasuna eta nekazaritza-mota guztien lehiakortasuna hobetzeko, nekazaritza-teknologia berritzaileak eta nekazaritza-kudeaketa iraunkorra sustatzeko eta, zeharka, lehen sektoreko bi-zi-kalitatea hobetzeko.

Dekretu hau pizgarri-eragina duten laguntzei soilik aplikatuko zaie. Laguntzek eragin pizgarria dutela ulertuko da, baldin eta, proiektuan edo jardueran lanean hasi aurretik, onuradunak laguntza-eskaera bat aurkeztu badu idatziz.

Laguntza horien foru erregulazioa, aipatutako erregelamenduan oinarritzeaz gain, bat dator laguntza horiei aplikatu dakiekeen Europako araudiarekin, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearekin, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauarekin (aurrerantzean, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua) eta Bizkaiko Foru Aldundia garatzeko eta dirulaguntzen erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuarekin.



Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio proposatutako xedapen orokorraren xede den gaiaren gaineko eskumena, hala deduzitzen baita azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakotik (Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzkoa). Lege horren 7.b) 2 artikuluari jarraituz, lurralde historikoei dagokie besteak beste erakunde erkideek nekazaritza eraberritu eta garatzeko ematen dituzten arauak garatzea eta betearaztea.

Horrekin lotuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 31ko 79/2022 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren egitura organikoa, 36. artikuluan Landa Garapenerako Zerbitzuari esleitzen dio nekazaritzako eta abeltzaintzako egiturei laguntzeko planen ondoriozko inbertsioak eta gainerako jarduketak kontrolatu eta jarraitzeko eskumena, eta proposatzen du hartarako ezarritako araudia betetzen duten dirulaguntzak ordaintzea.

Foru-dekretu honek genero ikuspegia txertatzen du bere prestatze-prozesuan eta bere aplikazioan, hala adierazten baita martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, zeinaren bidez onesten baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina (aurrerantzean martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretua). Gainera, kontuan hartu da zer xedatzen duen azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuak, zeinaren bidez finkatzen baitira generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko gidalerroak. Ebaluazioa, hain zuzen, aurreikusita dago martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan. Ildo horretan, haren izapidetze-prozesuan «Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena» gehitu da, zeinari erreferentzia egiten baitzaio aipatutako foru dekretuaren 2. oinarrian.

Foru Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituenak.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira (aurrerantzean, urriaren 1eko 39/2015 Legea) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Era berean, foru dekretu hau egitean, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete dira: generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena, kontrol ekonomikokoari, juridikoari eta legezketasunari buruzko nahi-tazko txostenak eman dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundearen hautespen, antolakuntza, araubide eta jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. 1. 4. eta 17. 2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio xedapena onestea.

Horri jarraituz, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak aurretik erabakita,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — *Nekazaritzako ustategietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarriak onartzea, eta laguntzen deialdia egitea 2026rako*

Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dira, baita 2026. urterako deialdia ere. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo Azken Xedapena. — *Arauen garapena*

Baimena ematen zaio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuari, foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta ezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.



Bigarren Azken Xedapena.—*Indarrean jartzea*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2026ko urtarrilaren 29an.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza
Sustatzeko foru diputatua,
ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



AURKIBIDEA

I. kapitulua. — Xedapen orokorrak.

1. Dirulaguntzaren xedea.
2. Diruz lagun daitezkeen jarduerak.
3. Baztertutako jarduerak.
4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta inbertsioaren ezaugarriak.
5. Onuradunak.
6. Inbertsioaren xede den nekazaritza-ustiategiak bete beharreko baldintzak.
7. Laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunen konpromisoak diruz lagundutako inbertsioari dagokionez.
8. Elkarreragingarritasuna.
9. Datu pertsonalen babesa.
10. Aplikatu beharreko araudia.

II. kapitulua. — Berariazko xedapenak.

11. Emateko prozedura.
12. Ebazpena. Prozedura bideratzeko organo eskuduna.
13. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.
14. Dirulaguntza aldatzea.
15. Diruz landutako jarduera gauzatzeko epea.
16. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.
17. Inbertsioetarako urteko laguntzen gehieneko muga.
18. Inbertsioen balorazioa eta modulazioa.
19. Inbertsioen kostua murriztea.
20. Emandako dirulaguntza ordaintzea.
21. Dirulaguntzaren justifikazioa.
22. Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak.
23. Onuradunak dirulaguntza borondatez itzultzea.
24. Ez betetzea eta itzulketa.
25. Arau-haustea eta zehapenak.
26. Emandako dirulaguntzen publizitatea.

III. kapitulua. — Deialdia.

27. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua
28. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.
29. Eskaera onartzea.
30. Aurrekontuko diru-izendapena.



I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea***

Foru dekretu honen xedea da oinarriak eta deialdia ezartzea, lehia askeko erregimenean, nekazaritza-ustategietan inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko, eta 2026erako laguntza-deialdia egitea, 2022/2472 salbuespeneko erregelamenduan xedatutakoa rekin bat etorriz.

Laguntza hauen helburua ustategia modernizatzea eta mekanizatzea da, ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko eta lanaren produktibitatea hobetzeko, ingurumen-jasangarritasuna eta laneko segurtasuna eta animalien higiena-baldintzak hobetzeko, ekoizpenen kalitatea hobetzeko eta elikagaien segurtasuna indartzeko, ekoizpena merkatuaren eskaeretara birbideratzeko eta nekazaritza-jarduerak dibertsifikatzeko.

Halaber, dekretu honen bidez, nekazaritza-sektorean pertsonak sartzeko helburua indartu nahi da, eta belaunaldiarteko erreleboaren bidez nekazaritza-jarduerak irautea eta erretiroagatik jarraipena arriskuan duten nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiak kontserbatzea eta mantentzea ere.

Dirulaguntzen programa honen babesaren pean egiten diren proiektu guztiek genero-ikuspegia jaso behar dute, eta ezin dute bereizkeria dakarren osagairik erabili, ez hizkuntzaren erabileran, ez irudietan.

2. oinarria. — *Diruz lagun daitezkeen jarduerak*

1. Diruz lagundu ahal izango dira ustategiaren errendimendu orokorra, ingurumen-jasangarritasuna, laneko segurtasuna, eta animalien higiena eta ongizatea hobetzen dituzten nekazaritza-ustategietan egindako inbertsio materialak, baldin eta gutxienez helburu hauetakoren bat badute:

- a) Nekazaritza-ustategiaren funtzionamendua eta iraunkortasun orokorra hobetzea, bereziki ekoizpen-kostuak murriztuz edo ekoizpena hobetu eta birbideratuz.
- b) Natura-ingurunea, higiena-baldintzak edo animalien ongizateari buruzko arauak hobetzea.
- c) Nekazaritza garatzeko, egokitzeko eta modernizatzeo azpiegiturak sortzea eta hobetzea, barne direla luraren jabetza eskuratzea, partzelak sendotu eta hobetzea, efizientzia energetikoa, energia jasangarria hornitzea eta ura edo energia aurreztea.
- d) Klima-aldaketa arintzen eta haren ondorioetara egokitzen laguntzea, bereziki berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuz eta karbono-atzematea areagotuz, bai eta energia jasangarria eta efizientzia energetikoa sustatuz ere.
- e) Bioekonomia zirkular jasangarria bultzatzea; halaber, garapen jasangarria sustatzea eta eraginkortasunez kudeatzea baliabide naturalak, hala nola ura, lurzorua eta airea, bereziki mendekotasun kimikoa murriztuz.
- f) Biodibertsitate-galera gelditzen eta itzulikatzen laguntzea, zerbitzu ekosistemi-koak sustatzea eta habitata eta paisaiak begiratzea.

2. Nolanahi ere, jarduera guztiak ekonomikoki eta finantzarioki bideragarriak izan behar duten inbertsioen bidez bideratu behar dira, emaitza ekonomikoak hobetzeko, modernizatzeo eta, hala badagokio, ekoizpen-tamaina edo -orientazioaren arabera berregituratzeko eta nekazaritza- edo abeltzaintza-ustategi osorako egokiak izateko.

3. Laguntza hauek izan behar duten eragin pizgarria babesteko, laguntzak eskatu ondoren egiten diren inbertsioek jasoko dute sostengua.

3. oinarria. — *Kanpo geratzen diren jarduerak*

Ez da laguntzarik emango honako kasu hauetan:

- a) Ordainketa-eskubideak erostea.
- b) Urteko landareak erosi eta landatzea.
- c) Drainatze-lanak.



- d) Animaliak erostea.
- e) Jabetza pribatutik kanpoko datu-sareetarako kableak edo kableria instalatzea.
- f) Kapital zirkulatzaila ez da diruz lagundu daitekeen kostutzat hartuko.
- g) Eskatutako inbertsioak eta gauzazko beste ekarpen zuzen batzuk zerbitzu gisa egiteko erabilitako eskulan propioa.
- h) Etxebizitza erostea eta etxebizitza gisa erabiliko diren baserriak eraikitze eta birgaitze obra berriak egitea.
- i) Ordezkapen soileko makinak edo ekipoak birjartzeko inbertsioak, baldin eta aldez aurretik diruz lagundu badira eta ordezkatu beharreko makineria edo ekipoa erosi eta 7 urte baino gutxiagoko epean egiten badira.

Landa-garapeneko zerbitzuak makinak birjartzearen kontzeptutik salbuetsi ahal izango ditu makinak erabateko ezbeharraren edo matxura konponezinaren ondorioz galtzen diren kasuak. Kasu horietan, osatu gabeko amortizazioaren koefiziente murriztailea aplikatu ahal izango zaio ordezkatutako makinari. Kasu horietan, birjarpenak aldez aurretik erosteko baimena eman ahal izango da, ekoizpen-ahalmenari eutsi ahal izateko.
- j) Tuneletan eta berotegietan (plastikoak, sareak, substratuak, etab.) suntsikorak birjarri, kontserbatu eta birgaitze obra.
- k) Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, ontziratze, merkaturatzeko eta sustatzeko instalazioetan, akuikulturan, nekazaritza-turismoetan, nekazaritzakoak ez diren dibertsifikazioetan eta energia berriztagarrietan egindako inbertsioak, salbu eta ustategiaren produkzio-prozesuaren beharrak betetzeko, basogintzako makinetarako, ikerketa-proiektuetarako eta animalien gaixotasunak desagerrarazteko proiektuetarako erabiltzen direnak.
- l) Bigarren eskuko nekazaritzako eta abeltzaintzako makineria, instalazioak eta ekipoak erostea, erreleboko transmisioetan izan ezik.
- m) Gauzazko kontribuzioak eta ordainketak, hau da, ordeztu beharreko makinak entregatzeagatik konpentsazio ekonomikoa.
- n) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), eta, oro har, ordaindutako edozein zerga, tasa edo baimen.
- o) Nekazaritza-enpresaren gastu orokorrak.
- p) Ez dira finantzatuko mahastizaintza- eta ardogintza-sektorean mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko inbertsioak, Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialean (ISV) sartuta daudenak, 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategiko Nazionalaren (PAC) esparruan.
- q) Erosteko aukera duten lurren errentamendu-kontratuekin lotutako kostuak, hala nola errentatzailearen marjina, interesen birfinantzaketa-kostuak, gastu orokorrak eta aseguru-gastuak.
- r) Gizendegietan inbertitzea, salbu eta ustategiko ziklo itxietan daudenak eta animalien edo ingurumenaren ongizateko baldintza higieniko-sanitarioak hobetzera bideratutakoak, eta I. eta II. taldeetako gizendegietan, behi-aziendak antolatze oinarritzko arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren 3. artikulua 4b) idatz-zatian definitutakoetan, eta horien gehieneko gaitasun onargarria Natura Ingurune eta Nekazaritza Saileko Abeltzaintza Zerbitzuak zehaztuko du.
- s) Biomasa bidezko elektrizitatea sortzeko instalazioetan egindako inbertsioak, baldin eta elikagaien eta/edo pentsuen uztaren lehengaiaren zati bat edo osoa erabiltzen badute eta helburu nagusia elektrizitatea ekoiztea badute.
- t) txerri-ekoizpen intentsiboaren sektorean txerri-plazak handitzea dakarten inbertsioak.
- u) Gizakiek nahiz animaliek jateko hazi ernamuinduak ekoitzi, ontziratu eta merkaturatzeko inbertsioak.

**4. oinarria. — Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta inbertsioaren ezaugarriak.**

1. Laguntzek diruz lagun daitezkeen kostu hauek estali ahal izango dituzte:
 - a) Ondasun higiezinak eraikitzeko, eskuratzeko (finantza-errentamendua barne) edo hobetzeko kostuak.
 - b) Makinak eta ekipoak erosteko aukerarekin erostea edo alokatzea, produktuaren merkatu-balioraino.
 - c) Kostu orokorrak, a) eta b) letretan adierazitako gastuei lotutakoak, hala nola arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak eta ingurumenaren eta ekonomiaren iraunkortasunari buruzko aholkularitzari dagozkion ordainsariak, bideragarritasun-azterlanak barne; bideragarritasun-azterlanak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, nahiz eta, azterketa horien emaitzaren arabera, a) eta b) letretan jasotako gastuak ez egin.
 - d) Programa informatikoak eskuratzeko edo garatzeko, eta patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta erregistratutako markak eskuratzeko.
 - e) Uraren kontsumoa murrizten duten ureztatze-instalazioei lotutako inbertsioak.

Ureztatze-instalazioen kasuan, inbertsioen kostuek aurreko ur-kontsumoaren murrizketa eragin beharko dute, eta, inbertsioaren zati gisa, laguntzaren xede den inbertsioari dagokion ur-kontsumoa neurtzeko aukera emango duen ur-kontagailu bat instalatuta egon beharko da edo instalatuko da.

Lurpeko edo azaleko ur-masei eragiten dieten inbertsioek URAREN (Uraren Euskal Agentzia) aurretiatzeko txostena izan beharko dute.
 - f) Uztaren biltegitratzea hobetzea.
 - g) Abereak hazteko edo berotegiak jartzeko eraikinak berregituratzea eta eraikitzea, energia aurrezteko, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko edo erabilerara hobetzea sustatzen duten teknologiak erabilita.
 - h) Simaurra biltegitratzeko egiturak hobetzea.
 - i) Ongarrien erabileraren eraginkortasuna hobetzea.
 - j) Ustiategiaren kontsumorako energia ekoiztea.

Inbertsioa lotuta egon daiteke iturri berriztagarrietatik sortutako energia ustiategietako ekoizpenarekin, betiere ekoizpen horrek ez badu gainditzen dagokion ustiategiaren erregaiaren edo energiaren urteko batez besteko kontsumoa.

Inbertsioa iturri berriztagarrietatik sortutako energia termikoko eta elektrizitateko nekazaritza-ustiategietan ekoizten denean, ekoizpen-instalazioek onuradunaren energia-beharrei soilik erantzun behar diete, eta haien ekoizpen-ahalmena ez da nekazaritza-ustiategiko energia termikoaren eta elektrizitatearen urteko batez besteko energia-kontsumo konbinatuaren baliokidea baino handiagoa izango, ustiategiaren familia-unitatea barne hartuta. Elektrizitatea sarean saltzea auto-kontsumoaren urteko muga errespetatzen den neurrian baino ez da baimenduko.

Inbertsioa zenbait onuradunen kontura egiten bada bioerregaien eta energiaren beharrezko erantzuteko, urteko batez besteko kontsumoa onuradun guztien urteko batez besteko kontsumoari dagokion zenbatekoari metatuko zaio.

Energia kontsumitzen edo ekoizten duten energia berriztagarriko azpiegiturretan egindako inbertsioek energia-eraginkortasunari buruzko gutxienezko arauak bete beharko dituzte, baldin eta estatu-mailan arau horiek badaude.
 - k) Ustiategiko energia-kontsumoa murriztea.
 - l) Atmosferarako emisioak murrizteko inbertsioak.
 - m) Ustiategi baten lurralde-oinarria handitzeko lurrak erostea diruz lagundu ahal izango da, gehienez ere eskuratu beharreko azaleraren balio modulatuaren %10eraino. 5. Oinarriko a), b), c), d) eta e) letretan zehaztutako onuradunei bakarrik emango zaie dirulaguntza.



2. Espedientean eskatutako inbertsio guztietarako gutxieneko inbertsioaren zenbatekoa 1.000 eurokoa izango da.

Inbertsioen modulazioaren ondorioz inbertsioaren guztizko zenbatekoa 1.000 eurotik beherakoa bada, espedientea ezetsi egingo da.

Eta ziurtagiriaren ondorioz benetan gauzatutako inbertsioak 1.000 eurotik beherakoak badira, emandako laguntza osoa baliogabetzea ebatziko da.

3. Makineria eta bere ezaugarriak ustiategiaren beharretarako egokiak izan behar dira, eta laguntza-mugak ezarri ahal izango dira gehieneko potentziari eta ustiategiaren Nekazaritza Azalera Erabilgarriari dagokienez.

Era berean, atoi espezifikoak onartu ahal izango dira nekazaritzakoak ez diren ibilgailuekin trakzionatutako abereak garraiatzeko.

4. Guztira 100.000 eurotik gorako inbertsio-proiektuek proiektatutako inbertsioen azterketa izan beharko dute. Teknikari homologatu batek idatzi beharko du azterketa hori, eta egiaztatu beharko du inbertsioak ekonomikoki justifikatuta daudela, bideragarriak direla eta ustiategiaren errendimendu orokorra hobetzea eta handitzea eragingo dutela.

5. Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako jarduera-lizentzia eduki beharko da instalazio-proiektu berrien kasuan, hau da, lehendik dauden jarduerak ez direnean.

Inbertsioak gauzatzeko eskatzen diren lizentziak eta gainerako behin betiko baime-nak eskaera egin aurretik eman beharko dira.

Eskabidearekin batera aurkeztu ez badituzte, 15 eguneko epean aurkezteko eskatuko zaie.

Epe horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztzen ez bada, eskatzaileak onuradun izateko eskatzen diren baldintzak bete ez dituela ulertuko da, eta bere espedientea ezetsi egingo da.

Udal-ordenantzak udal-lizentziarik eskatzen ez badu, onuradunari Udalaren berariazko ebazpena eskatuko zaio; bertan, administrazio-organoei lizentzia lortzeko buruzko kontsulta edo txostena egiteko eskaera aurkeztu zaiela eta hori ez dela beharrezkoa egin beharreko obrarako jakinarazi beharko da.

6. Nekazaritza-sektorean pertsonak sartu nahi badira, aurretik zeuden ustiategietan erretiroagatiko txandaren bidez lortu nahi bada, diruz lagunduko diren jarduerak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Transmisioak hainbat motatakoak izan daitezke:
 - 1) Lanean hasten den nekazari gazteari egindako transmisioak.
 - 2) 41 eta 48 urte bitarteko pertsonen edo ustiategiko langileei egindako transmisioak:
 - 3) Senideei egindako transmisioak.
- b) Batzordearen 2022/2472 (EB) Erregelamenduari jarraiki, lagatzailearen eta ustiategira sar daitekeen pertsonaren artean egindako lankidetzaproiektu bat formulatu eta aurkeztu beharko da, epe labur eta ertainean ustiapenerako helburuak eta jomugak eta ustiategiaren iraunkortasuna eta bideragarritasuna hobetzeko inbertsioen edo jardueren plana jasoko dituen.

Lankidetzaproiektu horretan argi eta garbi ezarriko dira ustiategiaren erabilera eta baterako kudeaketaren baldintzak eta iraupena, eta, hala badagokio, baita eskualdaketarena ere, ustiapena egiten denean.

Lankidetzaproiektuak Gaztenek prozeduraren bidez nekazaritza-sektorean sartzeko eska daitezkeen baldintza berak jaso eta bete beharko ditu.
- c) Ustiategira sartzeko, ustiategiko elementuak eskualdatzeko kontratu bat egin beharko da, indarrean dagoen legeriarekin bat datorrena. Kontratu horretan ustiategiaren kudeaketaren etaosatzen duten ondasun eta eskubide guztien erantzukizun zibila eta fiskala jasoko da.



- d) Nekazaritza-ustiategiak uzten dituzten pertsona fisikoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - 1) 57 urte baino gehiago izatea edo erretiro-egoeran egotea.
 - 2) Bestela, nekazaritzako jarduerarako ezintasun iraunkorra izatea.
- e) Kasu guztietan, langileak onargarritasun-baldintza gisa egiaztatu beharko du aldez aurreko erabilgarritasuna eta baliabide propioen ekarpena, kreditu edo finantza-tresna posibleak barne.
- f) Lehendik dagoen ustiategi bat errelebo-programa baten esparruan eskuratuz gero (5.e oinarria), eskuratzen duen pertsonaren enpresa-plana gauzatzeko behar diren inbertsio berriek NNPeztako ehuneko espezifikoaren arabera jasoko dute dirulaguntza.
- g) Erreleboan eskuratzeko inbertsioa pertsona batek edo gehiagok egin ahal izango dute, edo onuradun batek edo gehiagok erabilitako aktibo material edo immaterial bat izango du xede, baina gazteak gutxienez 10 urtez eduki beharko du jarduera eratzen den ustiategiaren eta kapital sozialaren %50 baino gehiago. Kasu horretan, eskuratzeko laguntzak bereizita kalkulatu dira, kide eskatzaileen izaeraren arabera.
- 7. Belaunaldi-erreleboko inbertsioen kasuan, honako gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:
 - a) Aurretik zegoen ustiapen-txanda bidezko eskuratzeko-kostuak, finantza-errentamendua barne. Aldi baterako errentamendu-eragiketak diruz lagundu ahal izango dira, konturako ordainketekin, ustiategiaren nahitaezko azken erosketaren aurka.

Lurrak belaunaldi-erreleboan erosteko aukera diruz lagundu ahal izango da, gehienez ere kasuan kasuko eragiketaren guztizko kostuen %10eraino.
 - b) Makineria eta ekipoak erosteko aukerarekin erostea edo alokatzea, lehendik zegoen ustiapen-txandaren bidez,
 - c) Kostu orokorrak, hala nola bideragarritasun-azterlanak, arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak, eta ingurumen- eta ekonomia-iraunkortasunari, energia jasagarriari, energia-eraginkortasunari eta energia berriztagarrien ekoizpenari eta erabilerari buruzko aholkularitzari buruzko ordainsariak.

5. oinarria. — Onuradunak

1. Foru dekretu honetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke atal bakoitzean deskribatutako baldintzak betetzen dituzten nekazaritza-ustiategiaren titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak:

- a) Pertsona fisiko diren nekazaritzako ustiategiaren titularren kasuan:
 - 1) 18 urte baino gehiago izatea laguntza-eskabidea aurkezteko unean.
 - 2) Nekazaritzako jardueren arabera dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta emanda egon behar dira.
 - 3) Nagusiki nekazari izan behar dira (NNP).

Nekazari profesional batek, NNP izateko, bere ustiategiaren gauzatutako nekazaritza-jardueratik atera behar du bere urteko errenta osoaren %50, gutxienez, urtean ustiategiarekin zuzenean lotutako jardueretan erabili behar du bere lan-denbora osoaren erdia edo gehiago, nekazaritzako lan-unitateetan neurtuta, eta nekazaritza-jarduerari dagokion araubidean kotizatu behar du Gizarte Segurantzari.

Nekazaritza jarduerak nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintzako produktuak lortzeko behar diren lanak dira, haien eraldaketa, ontziratzea eta merkaturatzea barne, azken horiek ustiategi baten barruan egiten badira, baita ustiategi mantentzeko behar diren lanak ere. Aplikatu behar den azken ekitaldi ekonomikoan baldintza hori bete ez bada, Landa Garapenerako zerbitzuak APA 171/2006 Ministro Aginduan jasotako baldintzak aplikatu ahalko ditu eskatzailea NNP denez aztertzeko.



- 4) Ezin da jaso nekazaritza-jardueraren zioz ezintasun oso edo ezintasun absolutuaren edo erretiroaren ziozko pentsiorik, ezintasun hori laguntza-eskaeraren xede den jarduerarekin lotuta ez badago..
- b) Titularra pertsona fisiko elkartu bat baino gehiago edo pertsona juridiko bat duten elkarte-ustiategien kasuan, gutxienez kideen edo bazkideen %50 nagusiki nekazariak badira (NNP) eta gutxienez kapital sozialaren edo banaketa-kuotaren %50 nagusiki nekazariak diren kide edo bazkideena bada (NNP).
- Era berean, kide guztiek ustiategiaren titular edo titularkide izan beharko dute, Sozietate horien helburu bakarra nekazaritza-jarduera zentzu zabalean gauzatzea izango da, titular diren ustiategian.
- Elkartea eratzeko agiri publikoan edo elkarte-ustiapena arautzen duen agirian behar bezala definituta geratuko da forma juridikoa, hau da, laguntza ematera-koan Administrazioarekin hartutako konpromisoaren araberrako gutxieneko iraupena, kapital soziala eratzekoa, eta kideek kudeaketan parte hartzekoa.
- c) Elkartean Gaztenek prozeduraren bidez sartzeko prozesuan dauden pertsonen kasuan:
- Monitorizazio-prozesuan dauden gazteek eskatu ahal izango dute laguntza-leerro hau, baldin eta 2026an 41 urte betetzen ez badituzte, baina, eskaera egin aurretik, enpresa-plana onartuta eduki beharko dute dagokion balorazio-batzordean.
 - Kokatu diren nekazari gazteen kasuan, horiek 5 urtera arteko epea izango dute nagusiki nekazariak direla egiaztatzeko, eta, ondorioz, inbertsiorako laguntzak eskatzeko unean, 5 urtera arte salbuetsita egongo dira nagusiki nekazari izateko baldintzatik. Lehendik dagoen ustiategi batean sartzen bada, gaztea nagusiki nekazari gisa hartuko da laguntza honen ondorioetarako.
 - Nekazari gazteak nortasun juridikoa duen eta nekazaritza-ustiategi baten titularra den elkarte-izaerako erakunde batean sartzen badira, kokatzen den gazteak zuzendaritza-batzordeko kide izan beharko du, eta kapital sozialaren partaidetza-maila jakin bat gutxienez 5 urteko epean, partaidetza-maila handiena duen bazkidearen proportzio berean.
 - Gaztenek balorazio-batzordeak enpresa-plana onesten ez dien gazteak nekazaritza-ustiategietan inbertitzeko laguntzen eskatzaile eta onuradun izan daitezke, f) apartatuko onuradunak bezala (EZ NNP).
 - Kasu horretan, 2 urteko epea izango dute halako titularrei eskatzen zaizkien betekizunak egiaztatzeko, zurezko laboreak ekoizteko orientazioak izan ezik, halakoek 5. urtean egiaztatu beharko baitituzte.
 - Zerbitzu honek jarraipena egingo du halako onuradunek eskatzen zaizkien betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, eta, betetzen ez badituzte, dekretu honen 24. oinarrian ezarritakoa aplikatuko zaie.
- d) nekazaritza-ustiategi batean sartu nahi duten eta 41 urte baino gehiago dituzten pertsonak.
- 41 urte edo gehiagoko ustiategi baten titularra sektorean sartzen bada, laguntza honen onuraduna izan ahal da, sartzen denetik. Baina laguntzak eskuratzeko Gaztenek prozeduraren bidez sartu behar da, eta nekazaritza-ustiategira sartzeko proiektu bat edo enpresa-plan bat egin behar du, eskaera egin aurretik balorazio-batzordeak onartu beharko duena.
- e) Lehendik dauden ustiategien titulartasuna belaunaldiarteko erreleboa dela-eta eskuratzeko pertsonak; zehazki, honako hauek: nekazari gazteak, 41-48 urte bitartekoak, ustiategiko enpleguak edo senideak (ezkontidea izan ezik).
- Halako pertsonen ezarritako Gaztenek prozeduran inskribatuta egon beharko dute; bertan adierazi aurretik identifikatutako eta lehendik dagoen ustiategi batean sartu nahi dutela, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritza-ustiategietan nekazari gazteak ezartzeko 6961.1 esku-hartzean eskatzen diren azken betebeharrak bete.



- f) Ustiatgien titularren kasuan, bai nekazaritza-ustiatgienak, pertsona fisikoak badira eta ez badira jotzen nagusiki nekazaritzan diharduen pertsonatzat (NNP), bai sozietate bidezko ustiatgienak, haietako kide edo bazkideen %50, gutxienez, ez badira nekazariak edo nagusiki nekazaritzan diharduten pertsonak (NNP) eta haien kapital sozialaren edo banaketa-kuotaren %50, gutxienez, ez bada nagusiki nekazaritzan diharduten pertsonak (NNP) diren kide edo bazkideen jabetzakoa, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

Bai pertsona fisikoak diren titularrek eta bai elkarte-erakundeek nekazaritzako 3.500 euro diru-sarrera eduki beharko dute 2024ko ekitaldiko errentaren gaineko zergaren edo, hala badagokio, sozietate-zergaren aitorpenean.

2. Laguntza eskatzen den egunean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan dauden datuak eta Gizarte Segurantzaren dauden datuak kontsultatuz egiaztatuko dira baldintza hauek, datuen elkarreragingarritasunaren bidez:

- a) Nekazaritzako jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda egotea.
- b) Nagusiki nekazaritzat (NNP) hartzea, bai pertsona fisikoak kalifikatzeko, bai pertsona juridikoak kalifikatzeko.
- c) Nagusiki nekazaria (NNP) ez izatea, bai pertsona fisikoak kalifikatzeko, bai pertsona juridikoak kalifikatzeko.
- d) 2024ko ekitaldiko errenta-zergaren edo sozietateen gaineko zergaren aitorpenean aitortutako nekazaritzako salmentak eta diru-sarrerak.
NNP kalkulatzeko, 2024ko ekitaldiko errenta-aitorpena edo sozietateen gaineko zerga erabiliko da.

3. Kanpoan utziko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten eskatzaileak:

- a) Dirulaguntzaren eskatzailea den pertsona fisiko edo juridiko pribatua krisian dagoen enpresatzat hartzea, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauetan ezarritako definizioaren arabera (2014/C 249/01).
- b) Eskatzailea berreskuratzeko agindu baten mende egotea, Batzordeak aldeaz aurretik erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin batezina dela.

6. oinarria.—Inbertsioaren xede den nekazaritza-ustiatgiak bete beharreko baldintzak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroan izena emanda egotea. Egin beharreko inbertsioak Bizkaiko Lurralde Historikoan egingo dira eta, ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoan egon beharko dute inbertsioen xede diren lursailek, ondasun higiezinak eta instalazioek.

2. Landaretza-osasunaren, animalien identifikazio eta osasunaren eta animalien ongizatearen gainean indarren den araudia betetzea.

3. 5. oinarriko a), b), c) eta d) letretan definitutako pertsona edo erakunde onuradunen kasuan, ustiatgiaren dimentsioa ez da izango NLU bat baino txikiagoa (urteko lan-unitatea) laguntza hori eskatzeko unean. Hala ere, ustiatgiaren gutxieneko neurria 0,5 NLU bada, baina ez bada 1 NLU iristen, laguntzaren onuradun izan daitezke, baina dirulaguntzaren tramitazioa eta ehunekoa 5.e) oinarrian definitutako titularren antzekoa izango da.

4. 5.f) oinarrian definitutako pertsona edo erakunde onuradunen kasuan, ustiatgiaren dimentsioa ez da izango 0,50 NLU-tik (nekazaritzako lan-unitatea/urte) beherakoa laguntza eskatzeko unean.

NLUak eta nekazaritza-ustiatgi bateko gainerako parametro ekonomikoak kalkulatzeko zenbait laboreren marjina gordinak, Nekazaritza Lan Unitateak (NLU) ezartzeko xede moduluak finkatzen dituen ezartzen den ofizial metodoa erabiliko da.



Ustiategiaren gutxieneko dimentsioa egiaztatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan dauden Nekazaritzako Lan Unitateak (NLU) kontsultatuko dira laguntza eskatzen den egunean. 2026. urteko laguntza-eskaerarako, NLUak kalkulatzeko kontuan hartuko den azalera-aitorpena ustiategiaren erregistro horretan eskaera egiten den egunean dagoena izango da.

5. Eskaera egiten duen ustiategiko animaliek Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean izena emanda egon beharko dute edo alta eman beharko zaie.

6. Belaunaldiarteko erreleboa egin dezaketen ustiategiaren hasierako egoeraren kasuan, betekizun hauek bete behar dituzte:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan egotea
2. Inskribatuta egotea bai Bizkaiko Foru Aldundiaren nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiaren erregistroan, bai belaunaldiarteko erreleboa dela-eta eskualda daitezkeen ustiategiaren katalogoan
3. Ustiategiak tamaina nahikoa izan beharko du, eta bideragarritasun ekonomikoa eta agronomikoa, kudeaketa-datuen edo beste adierazle batzuen bidez egiaztatua.

7. oinarria. — *Laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunen konpromisoak diruz lagundutako inbertsioari dagokionez*

1. Laguntza honen onuradunek oinarri honetan jasotako betebeharrak eta konpromiso espezifikoak bete beharko dituzte diruz lagundutako inbertsioak gauzatzeari eta kudeatzeari dagokionez. Honako puntu hauetan zerrendatuko dira betebeharrak eta konpromiso horiek.

2. Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraztea inbertsio bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan egiten dituen laguntza-eskaera guztiak. Jakinarazpen hori jakin bezain pronto egin beharko da, eta edonola ere, azkeneko ordainketa guztiz justifikatu aurretik.

3. Inbertsio-plana laguntza emateko ebazpenean adierazitako epean gauzatzea, hargatik eragotzi gabe luzatzea, betiere justifikatutako arrazoiengatik.

4. Diruz lagundutako inbertsioak aktiboan, jabetzan edo finantza-errentamenduan eta ustiatagia erabiltzeko mantentzea, gutxienez:

- a) 10 urte, eraikuntza edo instalazio finkoen kasuan, laguntza ematen den egunetik aurrera.
- b) 7 urte nekazaritzako makinetan edo eraikuntzez bestelako makinetan egindako inbertsioen kasuan, Nekazaritzako Makineriaren Erregistroan izena ematen den egunetik edo erregistrorik gabeko inbertsioetan emandako egunetik aurrera.

5. Ustiategi bat belaunaldiarteko erreleboa dela-eta erosten bada, laguntzaren onuradunak gutxienez 10 urtez eutsi beharko dio jarduerari, eta 15 urtean ezin izango die hirugarren batzuei eskualdatu ustiapena. Bestela, laguntza itzuli beharko du, dagozkion legezko interesekin.

6. 41 urte baino gehiagorekin instalatzen diren pertsonen bi urteko epean egiaztatu behar dituzte REASS edo Norberaren Konturako Nekazaritza Sistema Bereziari 2 urteko kotizazioaren baldintzak eta dedikazio profesionala.

7. Inbertsioen amaieraren berri ematea Eskualdeko Nekazaritza Bulegoari, edo Herriarrei Harreta emateko Bulegoan, edo Landa Garapeneko Zerbitzuari, eta dagokion ordainketa-eskaera aurkeztea, ordainketa-egiaztagiriekin eta emakida-ebazpenean eskatutako gainerako dokumentuekin batera, Oca-etako, Herriarren Arreta eta Nekazaritza Laguntzako Ataleko zerbitzu teknikoek egindako inbertsioaren ziurtagiria egin dezaten. Ez badira betetzen baldintza eta konpromiso horiek, laguntza itzultzeko eskatuko da.

Onuraduna erretiro-egoerara igarotzen bada, inbertsioei eutsi beharko zaie oinarri honetako 4. idatz-zatian ezarritako epean. Era berean, jarduerari eusten zaiola ulertuko da onuraduna erretiro-egoerara igarotzen denean, baldin eta ustiatagia ATP titularra



duen beste ustiategi batera eskualdatzen badu, eta ustiategi horren titularra subrogatu egin beharko da geroratutako betetze-konpromisoei eusteko.

Laguntza bat emateko baldintza gisa hartutako konpromisoa gauzatzeko aldian, onuradunak bere ustiatagia osorik edo zati batean beste pertsona bati transferitzen badio, pertsona horrek hartu beharko du konpromiso hori aldiaren gainerako zatian. Konpromisoa hartzen ez bada eta ustiatagia eskualdatzen bada, onuradunak jasotako laguntzak itzuli beharko ditu.

8. Makina edo ekipo berriak finantza-errentamenduaren bidez (leasing) eskuratzen direnean, onuradunak ondasuna erosi beharko du kontratuan hitzartutako gehieneko 7 urteko epearen barruan; beraz, eskuratzeari uko egiten badio edo erosteko aukera erabiltzen ez badu, emandako laguntza osorik itzuli beharko du.

9. Bere eginkizunetan diharduela, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzari buruz eskatzen dion dokumentazioa eta informazioa ematea.

10. Laguntzaren xede diren makinak Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren Nekazaritzako Makineriaren Erregistroan inskribatu beharko dira, nahitaezkoa denean, eta ez dira egongo alde aurretik beste Nekazaritzako Makinen Erregistro batean inskribatuta egongo.

11. Diruz lagundutako inbertsioari dagozkion transakzio guztietarako kontabilitate-sistema edo kontabilitate-kode egokia egiaztatu ahal izango da.

12. Onuradunek egunean eduki behar dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

13. Onuradunak ez dira egongo auzi bidean edo administrazio bidean zigortuta dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduta, eta horretarako desgaitzen duten legezko debekurik ez dute izango, sexu diskriminazioaren zioz gertatu direnak barne, betiere, 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuarekin bat etorritik, eskabidea egiteko epea bukatu baino lehen.

Pertsonak edo erakundeak ezingo dira dirulaguntzaren onuradun izan arau haue-tan ezarritako betebeharrak bete ezean: emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretua edota Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarri-rako mar-txoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

14. Foru dekretu honen bidez diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta proiektuak indarrean dagoen araudia bete beharko dute ingurumena, higiena, laneko osasuna eta segurtasuna, animalien osasuna eta animalien ongizateari dagokienez.

15. Onuradunek deialdi honetan egindako eta diruz lagundutako eraikuntzen eta instalazioen aseguruak kontratatatu beharko dute.

8. oinarria. — *Elkarreragingarritasuna*

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak, Bizkaiko elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, azaldutako elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliz, egin beharreko egiaztapen eta kontsultak egingo ditu Administrazioak eskatzaileei buruz dituen eta laguntza horien tramitazio administratiborako beharrezkoak diren datuen gainean. Eskatzaileek horren aurka berariaz egiten badu, berriz, eurek aurkeztu beharko dituzte eskatutako ziurtagiriak eta dokumentuak. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Sailak eska ditzake izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak, kontuan harturik 28.2 artikuluan ezartzen duena Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, eta harekin lotuta 6.e) artikuluan xedatzen duena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak.

Era berean, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu foru dekretu honetan jasotako inguruabarrei buruz, Datuak Babesteko Lege Organikoaren (3/2018 LO) zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

**9. oinarria. — *Datu pertsonalen babesa***

Interesdunak emandako datuak erabiliko dira foru dekretutik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko, kontuan harturik zer xedatzen duten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, zeinak arautzen baititu datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoei eman beharreko babesa eta datu horien zirkulazio askea eta indargabetzen baitu 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, zeinak egokitu eta osatzen baitu Europako araudia.

Aipatutako datuak ez dira inola ere tratatuko edo hirugarrenei lagako, ukitutako pertsonaren zalantzarik gabeko baimenarekin ez bada, edo lehen aipatutako araudian aurreikusitako kasuetan.

Interesdunak administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak adierazten dituen edozein bitartekoren bidez egiten badira eskaerak, eskaera jasotzen duen organoak, bere eskumenak erabiliz, beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu datuen zehaztasuna egiaztatzeko.

Araudi horretan xedatutakoa betetz, interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko («ahazteko eskubidea»), tratamendua mugatzeko, datuak eramateko eskubideak, eta ez zaio tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakirik emango, profilak egitea barne, baldin eta tratamenduan ondorio juridikoak baditu edo antzeko eragin nabarmena badu. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Era berean, Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan erreklamazioa aurkezteko eskubidea du, eta informazio hori Bizkaiko Foru Aldundiaren web orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean zabaldu ahal izango du (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

10. oinarria. — *Aplikatu beharreko araudia*

Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak bertan eta eskabideak ebazteko foru aginduetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Era berean, honako arau hauek ezartzen dutena aplikatuko da: 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2018 Foru Dekretua, otsailaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Foru Aldundiak emandako dirulaguntzen araubide orokorra onesten duen dirulaguntzei buruzko Araudia aldatzen duena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen prozeduretan gizarte, ingurumeneko eta beste politika publiko batzuei buruzko baldintzak sartzeko gida onesten duena; bai eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko arautegia.

Halaber, aplikatzekoak izango dira Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Erregelamendu Orokorra onartzen duena, eta Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren ekainaren 18ko 1305/2015 Foru Agindua, dirulaguntzak eta dirulaguntza publikoak ematearen arloko gastua fiskalizatzeko prozedura onartzen duena.

Honako hauek ere aplikatuko dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen eremuan Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena.

Azkenik, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere aplikatuko da, bai subsidiarioki edo ordezkotzat gisa aplikatzekoa den gainerako araudia ere.



II. KAPITULUA

BERARIAZKO XEDAPENAK**11. oinarria. — *Emateko prozedura***

1. Prozedura lehia askekoa izango da; izan ere, nekazaritzako ustategiek urte natural osoan egin beharreko inbertsioak behar bezala kudeatzeko eta inbertsio horiek ustategiaren jarduerak denboran jarraitzeko aukera emateko, beharrezkoa da inbertsioak egin behar diren unean laguntzak eskatzeko aukera erraztuko duen tresna bat hornitzea.

Foru-dekretu honen ondorioetarako, lehia-norgehiagokatzat hartzen da dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatzen dituen prozedura, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartze aldera, aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera eta foru-dekretu honetan aurrez ezarritako zenbatekoaren mugarekin

Eskaera jaso dela ulertuko da beharrezko baldintza eta dokumentu guztiak beteta daudenean, eta eskaerak ebazteko hurrenkera bi lerrotan ezarriko da, eskatzaileak NNP diren edo ez kontuan hartuta.

2. Deialdirako dagoen aurrekontu-kreditua nahikoa ez bada laguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiei dagozkien dirulaguntzak emateko, ezetsi egingo dira ekitaldi horretako aurrekontu-zuzkidura nahikoa ez izateagatik erantzun ezin diren eskabide guztiak, betiere eskaeraren sarrera-erregistroaren ordena errespetatuz. Dokumentazio-errekerimendurik egonez gero, dokumentazioa zein egunetan osatu den adieraziko du eskabidearen hurrenkerak.

3. Dagoen aurrekontu-kreditua nahikoa ez balitz oinarri honen lehenengo puntuko bigarren lerrokadan deskribatutako ordena errespetatuz erantzun beharko litzaiokeen eskaerari erantzuteko, kreditu erabilgarria egokitzen zaion eskaerari erantzungo zaio, foru dekretu honen bidez babestutako laguntzen eraginkortasuna bermatzeko helburuarekin. Kreditu erabilgarriara egokitzen den aurrekonturik duen eskaerarik ez badago eta aurreko irizpidea bete ezin bada, ezetsi egingo dira aurrekontu-krediturik ez dagoelako egindako eskaerak.

12. oinarria. — *Ebazpena. Prozedura bideratzeko organo eskuduna*

1. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Landa Garapenerako Zerbitzua izango da prozedura instruituko duen organoa eta berak izapidetuko ditu eskabideak, eta ofizioz egingo ditu proposamena egiteko behar dituen datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze behar dituen jarduketa guztiak; izan ere, datu horiek kontuan hartuta ebazpen-proposamena egin behar zaio ebazteko eskumena duen organoari.

2. Eskabideak Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuak ebartziko ditu, Landa garapenerako Zerbitzuko buruaren proposamena kontuan hartuta, nekazaritzako Zuzendaritzaren oniritzia jaso ondoren.

Eskabideak ebazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskabidea osorik aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Egun horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntza-eskaerak ezetsitzat joko dira, laguntza eman duen organoak eskaerak berariaz ebazteko duen betebeharrari kalterik egin gabe.

Eskabidean jarri duen tokian egingo zaio ebazpenaren jakinarazpena interesdunari, edo, halakorik ezin bada, jakinarazpenetarako egokia den beste tokiren batean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 42. artikulura xedatutakoaren arabera.

3. Laguntzari uko egin nahi izanez gero, dirulaguntza aurkezteko epea hamabost (15) egun balioudunekoa izango da, erakunde interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera egindako edozein uko egite dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzat joko da

4. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretan eskumena duen Administrazioarekiko Auzien Salan. Hala ere, aukerako berraztertze-errekurtsoa ere jarri ahal izango zaio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko



Saileko foru diputatuari, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat. Horretarako, hilabeteko epea izango da, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

13. oinarria. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1. Foru dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, nondik ere datorrela: administrazio edo erakunde publiko edo pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak, betiere gehieneko laguntzaren intentsitatea errespetatzen bada gastu hautagarri beretarako.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inoiz izango diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

3. Aurreko mugaren bat gaindituz gero, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio eman beharreko edo emandako dirulaguntzari.

4. Onuradunek Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso dutela, jakin bezain laster eta, betiere, funtsen aplikazioa justifikatu baino lehen. Horrekin batera, egin duen itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu beharko dute. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzultzeko prozedura hasteko.

14. oinarria. — Dirulaguntza aldatzea

1. Pertsona eta erakunde onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, emakida-ebazpenaren aldaketak eskatu ahal izango dituzte, baldin eta aldaketa horiek ezarritako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jardueran integratzen diren ekintzak aldatzea badakarte. Aldaketa horiek baimenduko dira, baldin eta jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoa bada edo ustekabeko zirkunstantzietan gertatzen badira, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenek eskubideak kaltetzen ez badituzte.

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago aurkeztu beharko dira aldaketa-eskaerak.

2. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuak, foru agindu bidez, ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, interesdunari entzun ondoren eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta emakidarako kontuan hartutako baldintzak aldatzeak lortu nahi den interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

3. Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketak izan direla eta, ondorioz, ebazpena aldatu egin dela, eta aldez aurretik onartu beharreko administrazio-baimenaren izapidea egin ez bada, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahal izango du, baldin eta onarpen horrek ez badakar hirugarrenen eskubideak kaltetzea, eta onuradunak ezin izango du salbuetsi 5/2005 Foru Arauari dagozkion zehapenetatik.

15. oinarria. — Diruz landutako jarduera gauzatzeko epea

1. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak eskabidearen ostean hasi beharko dira, eta data hauen aurretik gauzatu:

- 2026ko aurrekontuaren kontura onartutako helburuak, 2026ko abenduaren 9ra arte.
- 2027ko aurrekontuaren kontura onartutako helburuak, 2027ko urriaren 29ra arte.

Laguntza-eskabidea ireki aurretik inbertsioak egiteko aldez aurreko baimena eskatu duten inbertsioen kasuan, aurrez adierazitako epeak baino lehen ere gauzatu beharko dira.



2. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuak egikaritze-epea luzatu ahal izango du, hurrengo paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

3. Onuradunak egikaritze-epea luzatzeko eskatu ahal izango du, baldintza hauek betez gero:

- a) Alegatutako arrazoia gertatu eta izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatu ahal izateko berehala eskatu beharko da, eta, nolana ere, exekuzio-epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago.
- b) Betearazpen-epea luzatzea eragin duen eta onuradunaren doloari, erruari edo zabarkeriari egotzi ezin zaion kausa adierazi beharko da.
- c) Ustekabeko kasua eta ezinbesteko kasua, gertatzen badira, kontuan hartuko diren faktoreak izango dira eskatzen den zabaltzeari buruz ebazteko.
- d) Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: alegatutako arrazoia egiaztatzen duen dokumentazioa, izandako edo jasango duen atzerapena egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, ondorioz, eskatutako luzapen-epea, bai eta dirulaguntza kudeatzeaz arduratzen den zerbitzua eskatzeko komenigarritzat jotzen den beste edozein agiri ere.
- e) Ez da luzapenik emango alegatutako eta egiaztatutako atzerapenaz harago, baldin eta luzapen horrek emandako dirulaguntzaren helburua betetzea ahalbidetzen badu eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.

4. Eskatutako luzapenari buruz ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa da, eskaera aurkeztu eta berriazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsitatzat joko da.

5. Onuradunek, espedientean onartutako inbertsio guztiei uko egiten badiete 1. apartatuan adierazitako justifikazio-epea amaitu ondoren, ezingo dute nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko laguntzarik eskatu 2027eko deialdian.

Zigor hori ez zaie aplikatuko Gaztenek prozeduraren bidez lehen instalazioa egiteko prozesuan dauden gazteei.

16. oinarria. — Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa

1. 5. oinarriko a), b), c) eta d) idatz-zatietan definitutako pertsona edo erakunde onuradunen kasuan: dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren bolumenaren ehunekoan adierazita, honako hau izango da:

- a) Nekazaritzako eta abeltzaintzako makineria: %40.
- b) Gainerako inbertsio hautagarriak: %45.

2. 5. oinarriko e) atalean definitutako pertsona edo erakunde onuradunen kasuan: dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren bolumenaren ehunekoan adierazita, honako hau izango da:

- a) Nekazaritzako eta abeltzaintzako makineria: %30.
- b) Gainerako inbertsio hautagarriak: %35.

3. Lehendik dagoen ustiategi bat errelebo-programa baten esparruan eskuratzen duten pertsonen kasuan (5.e oinarria), honako hau bete beharko da:

- a) Lehendik dagoen ustiategi baten titulartasuna nekazari gazte batek eskuratzen duenean:
 - Ustiategia eskuratzeko laguntzaren intentsitatea eskuratu beharreko aktiboen balioztapenaren %65 izango da.
- b) Lehendik dagoen ustiategi baten titulartasuna 41-48 urte bitarteko pertsona batek edo ustiategiko enplegatuek eskuratzen dutenean:
 - Kasu horretan, ustiategia eskuratzeko laguntzaren intentsitatea eskuratu beharreko aktiboen balioztapenaren %55 izango da.



- c) Lehendik dagoen ustiategi baten titulartasuna lagatzailearekin familia-harremana duen pertsona batek eskuratzen duenean:
- Ustiategia eskuratzeko laguntzaren intentsitatea eskuratu beharreko aktiboen balioztapenaren %50 izango da.
 - Aurreko hiru kasuetan, lurra erosteko aukera diruz lagundu ahal izango da gehienez ere dagokion eragiketaren guztizko kostuen %10eraino.
 - Lehendik dagoen ustiategi bat errelebo-programa baten esparruan eskuratuz gero (5.e oinarria), eskuratzen duen pertsonaren enpresa-plana gauzatzeko behar diren inbertsio berriek NNPeztako ezarritako laguntza-ehunekoren arabera jasoko dute dirulaguntza.

17. oinarria. — Inbertsioetarako urteko laguntzen gehieneko muga

Nekazaritza-ustiategi batek inbertsioetarako jaso ditzakeen dirulaguntza guztien zenbatekoa gehienez ere 75.000 euro izango da, urtean, ustiategiaren nekazaritzako lan-unitate bakoitzeko (NLU).

Dirulaguntzen tarte eta gehieneko zenbateko hauek ezartzen dira, kontuan harturik zenbat nekazaritzako lan-unitate (NLU) dauden laguntza eskatzeko unean:

Nekazaritzako ustiategiaren NLUak	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (€)	Oharrak
0-10	225.000	Gehieneko zenbatekoa ustiategiaren benetako NLUen arabera izango da.
10-15	300.000	
>15	375.000	

5.c) oinarrian definitutako pertsona edo entitate onuradunen kasuan (Gaztenek prozeduraren bidez sartzeko prozesuan dauden pertsonak) eta 5.d) oinarrian definitutako pertsona edo entitate onuradunen kasuan (nekazaritza-ustiategi batean sartu nahi duten eta 41 urte baino gehiago dituzten pertsonak), dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira Gaztenek balorazio-batzordeak onetsitako enpresa-planean definitutako nekazaritzako lan-unitateak.

5.f) oinarrian definitutako pertsona edo entitate onuradunen kasuan (nagusiki nekazaritzan diharduten pertsonatzat [NNP] jotzen ez diren pertsona fisikoak, eta sozietate bidezko ustiategiak, haietako kide edo bazkideen %50, gutxienez, ez badira nagusiki nekazaritzan diharduten pertsonak [NNP] eta haien kapital sozialaren edo banaketa-kuotaren %50, gutxienez, ez bada nagusiki nekazaritzan diharduten pertsonak [NNP] diren kide edo bazkideen jabetzakoa), dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 50.000 euro izango da urtean.

Diruz lagundu daitezkeen muga horietatik kanpo geratuko dira belaunaldi-erreleboa dela-eta egiten diren eskualdatze-eragiketak:

Nekazaritza-ekoizpen primarioari lotutako nekazaritza-ustiategia erostea dakarren eskualdatzeko laguntzen kasuan, gehieneko muga 450.000 euro izango da enpresako eta inbertsio-proiektuko.

Laguntza honi batu ahal izango zaizkio, muga 600.000 EURO delarik enpresako eta inbertsio-proiektuko, nekazari gazteak ezartzeko edo landa-enpresa bat abian jartzeko laguntzak (Euskadiko 2023-2027 NPearen Plan Estrategikoaren 6961.1 esku-hartzea).

18. oinarria. — Inbertsioen balorazioa eta modulazioa

Diruz lagundu daitezkeen kostuak inbertsioak baloratzeko Eusko Jaurlaritzak argitaratutako modulueta egokituko dira, merkatuko kostuak kalkulatzeko dokumentuaren edo 4.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2014/2020 Programako nekazaritza-ustiategietako inbertsioetarako laguntza neurriari dagozkion moduluen bidez, eguneratze-premiengatik %35 handituta.



Era berean, biltegiak eraiki, handitu eta eraberritzeko lanak diruz lagundu ahal izango dira (gehienez 100 m²-ko azalera). Bazka-biltegiak muga horretatik salbuetsi ahal izango dira.

19. oinarria. — Inbertsioen kostua murriztea

1. Landa Garapeneko Zerbitzuak onartutako aurrekontua aurkeztutako gutxienekoa izango da, baldin eta onartutako gehieneko moduluen azpitik badago. Bestela, moduluak aplikatuko dira.

2. Obra gauzatzearatik 40.000 eurotik gorako kostua edo ekipo-ondasunen horniduragaratik 15.000 eurotik gorako kostua duten inbertsio eta gastuetarako, hiru aurrekontu edo proforma bidezko fakturak aurkeztuko dira.

3. Landa-garapeneko zerbitzuak zehaztutako inbertsioen balorazio-moduluetan jasotako inbertsioetarako, baldin eta 5.000 eurotik gorako zenbatekoa badute eta obra gauzatzearatik 40.000 euroko kostua edo ekipamendu-ondasunak hornitzeagatik 15.000 euroko kostua gainditzen ez badute, proformako aurrekontu edo faktura bat baino ez da aurkeztu beharko.

Landa-garapeneko zerbitzuak zehaztutako inbertsioak baloratzeko moduluetan jasota ez dauden inbertsioetarako:

4. 5.000 eurotik gorako inbertsioak, baldin eta obra gauzatzearatik 40.000 euroko kostua edo ekipamendu-ondasunak hornitzeagatik 15.000 eurokoa gainditzen ez badute, hiru aurrekontu edo proformako faktura aurkeztu beharko dira.

5. 5.000 eurotik beherako inbertsioak, proformako aurrekontu edo faktura bat aurkeztu beharko da.

6. Inbertsioa modulatuta ez badago eta ezaugarri bereziak baditu eta merkatuan hornitzaileen eskaintza nahikorik ez badago, aurrekontu bakarra aurkeztea onartu ahal izango da.

7. Tasazioa transmititu beharreko ustategien balorazioa nekazaritzako administrazio eskudunak kostuak moderatzeko aurrez ezarritako moduluetara egokitu beharko da.

Balorazioan, kostuen moderazioaz gain, dagozkion amortizazioak aplikatu beharko dira ustategiaren antzintasunaren arabera, eta aktibo horietan azken 10 urteetan jasotako inbertsio-dirulaguntzak kendu beharko dira.

20. oinarria. — Emandako dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntza ordaintzeko, onuradunak aldez aurretik justifikatu beharko du eman zitzaion jarduera, proiektua, helburua edo jokabidea gauzatu dela, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera eta justifikatutako zenbatekoarekin.

2. Behar bezala justifikatutako kasuetan, justifikazioa egin aurretik, edo ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, dirulaguntzari datxezkion jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzazio gisa, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 31.4 artikulua.

3. Pertsona edo erakunde onuradunei egindako ordainketak proportzionalak izango dira diruz lagundu daitezkeen gastu justifikatuekiko, urte bakoitzean emandako zenbatekoak alde batera utzita, eta aldi bakoitzean emandakoa baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako eta behar bezala justifikatutako gastuarekiko proportzionala den dirulaguntzaren azken doikuntza egingo da.

4. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da pertsona edo erakunde onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordun itzulketa-prozeduraren ebazpen bidez. Egiaztapenaren ondorioz ondorioztatzen bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzulketa-prozeduraren bidez, ezin izango da dirulaguntza ordaindu.

5. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da dirulaguntzaren eskabidean izendatutako kontu korrontera.

6. Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, onuradunek egiaztatu beharko dute zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerako



betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela. Hori egiaztatzeko, eskabidea aurkeztu beharko dute, eta dirulaguntza ematen den unean, obligazioa onartzen eta ordaintzen jarraituko dute. Baterako titulartasunen kasuan, titularkidetasuna osatzen duten pertsona guztiei dagokie egiaztapen hori.

Eskaera pertsona bakar batek aurkeztu badu proiektuaren sustatzaile gisa, sustatzailer izendatutako pertsona horri egingo zaio ordainketa.

Halaber, erakunde onuradunei laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura.

21. oinarria. — Dirulaguntzaren justifikazioa

2026ko abenduaren 9ra arte, 2026ko aurrekontua egikaritzen duten inbertsioetarako, eta 2027ko urriaren 29ra arte, 2027ko aurrekontua egikaritzen duten inbertsioetarako, dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Landa Garapeneko Zerbitzuan, ezarritako edozein bide erabiliz, dagozkien eranskinekin batera. Agiri horiek www.ebizkaia.eus webgunetik deskargatu ahal izango dira:

- a) Egindako jarduerak justifikatzeko memoria teknikoa.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen memoria ekonomiko xehatua, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamenduaren 57. artikuluan jasotako edukiarekin».
- c) Merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten fakturak edo dokumentuak (jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak), honako xehetasun hauek kontuan hartuta:
- d) Ustategiak eskualdatzeko eskriturak, jabetza-erregistroa edo egiaztagiria.
- e) Eskudirutan ordaindutako fakturak: Sinatzailearen datuekin sinatu edo jaso duen pertsonaren zigilua, sinadura eta datuak dituen faktura. Ezin izango dituzte ezarritako legezko mugak gainditu. 1.000 euro (11/2021 Legea, iruzurraren aurkako prebentzio eta borrokarako neurriei buruzkoa).
- f) Txekez edo zor-agiriz ordaindutako fakturak. Zigilua duen faktura eta txekearen edo zor-agiriaren datuak.
- g) Transferentziaz ordaindutako fakturak: Zigilua duen faktura eta bankuko agiriaren kopia.

Egiaztapen-lan hori amaiturik, landa garapenerako Zerbitzuak dagokion egiaztapen-akta emango du, eta ordainketa egiteko aginduko.

Foru dekretu honetan xedatzen diren dirulaguntzak eman eta jasotzeko, erakunde onuradunek nahitaez egiaztatu beharko dute betetzen dituztela bai beren zerga-betebeharrak bai Zuzenbide Publikoko zein Gizarte Segurantzarekikoak. Eta inguruabar hori, eskabidea aurkeztean betetzeaz gainera, laguntza emateko orduan, eginbeharra onartzean eta ordaintzerakoan ere bete beharko dute. Baterako titulartasunen kasuan, titularkidetasuna osatzen duten pertsona guztiei dagokie egiaztapen hori.

22. oinarria. — Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak

1. Eskaera aurkezten dutenetik, onuradunek konpromisoa hartzen dute Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko langileei errazteko egin behar dituzten ikuskapen- eta kontrol-lanak.

2. Gainera, foru dekretu honetan eta dirulaguntzei buruzko espedientean ezarritako baldintzak betetzeko eta egindako inbertsioa mantentzeko konpromisoa hartuko du onuradunak.

Onuradunari egotz dakioken arrazoiren batengatik inbertsioa bertan behera uztea edo suntsitzea inbertsioa ez betetzetat joko da.

3. Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan oro har ezarritako betebeharez gainera, honako hauek ere bete behar dituzte:



- a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunak 15 eguneko epean dirulaguntza eman zaiola dioen jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera—berariaz eta idatziz edo horretara argi bideratutako ekintzak eginez uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartutzat joko da.
- b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako eta emateko ebazpenean edo —hala badagokio— likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera erabiltzea.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde ordaintzailearen erakunde eskudunei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasuneko erakunde eskudunei ematea, beren eskumenak erabilia, foru dekretu honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen duten informazioa.
- d) Berdintasunaren arloko betebeharrak:
 - 1) Pertsona fisiko edo juridikoek, lan-baldintza duinak, zintzoak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz, arlo hauetan guztietan sustatu beharko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: lanpostuen definizioa, postuen sarbide, kontratazio eta azkentzea, lanbide-sailkapena, promozioa, prestakuntza, lan-segurtasun eta -osasuna, ordainsari-politika, erantzunkidetasuna eta bizitza pertsonal, laboral eta familiarraren kontziliazioa, lan-kalitate eta -egonkortasuna, lanaldiaren iraupen eta antolamendua, eta ekintza sindikala, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboa.
 - 2) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak direla eta sustatzen den irudiak baliotzat dauzkala berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitate pluralak, bai idatzizko eta ahozko informazioan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialean.
 - 3) 50 langiletik gorako plantilla duten pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu beharko dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat edukitze-ko betebeharra betetzen dutela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legearekin bat, eta egiazki aplikatzen dela.
 - 4) Hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatze eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.
- e) Entitateen laguntza jasotzen duten elkarteek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, bai eta liburuxka, kartel edo beren jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen duten beste edozein euskarritan ere.

Gainera, Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauan araututako publizitate aktiboko arauak aplikatuko zaizkie erakunde pribatuei, baldin eta aurrekontu-ekitaldi batean gutxienez 100.000 euroko laguntza edo dirulaguntzak jasotzen badi-tuzte Bizkaiko Foru Aldunditik, edo urteko diru-sarrera guztien ehuneko 40 foru laguntza edo dirulaguntza publikoa bada, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000,00 eurotik gorakoa bada (BEZa kanpo), obren kasuan, eta 15.000,00 eurotik gorakoa (BEZa kanpo), zerbitzuen eta horniduren kasuan, pertsona edo erakunde onuradunak eskabidearekin batera edo egindako jardueren justifikazioarekin batera aurkeztu beharko du, baldin eta gutxienez hornitzaileen hiru eskaintza eskatu baditu, salbu eta diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan es-kaintza hori hornitzen edo ematen duen nahikoa erakunde ez badago.



Aurkeztutako eskaintzen artean, proposamen ekonomikorik onena aukeratu beharko da, salbu eta eskatzaileak berariaz justifikatzen badu beste aukera bat egitea eta landa garapenerako Zerbitzuak onartzen badu.

23. oinarria. — Onuradunak dirulaguntza borondatez itzultzea.

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak berak organo emailearen inolako erreke-rimendurik gabe egiten duena.
2. Onuradunak foru dirulaguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Ogasunaren eredu ofizialaren arabera ordainketa-gutuna erabili beharko du.
3. Borondatezko itzulketa egiten denean, dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dira, Dirulaguntzei buruzko foru arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

24. oinarria. — Ez betetzea eta itzulketa

Aurreko oinarrietan ezarritako baldintzetariko edozein ez betetzeak dirulaguntza ezeztatzea ekarriko du berekin, baldintzak ez betetzeagatik, eta, hala dagokionean, laguntza itzuli beharra ere. Honako arauen arabera izango da hori: Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorrari buruzko 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II. titulua, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren III. titulua, eta aplikatu beharreko gainerako araudiak.

Jarduera baterako ematen diren laguntzak beste xede baterako erabiliz gero, itzuli egin beharko da dirulaguntza.

Erakunde eskatzaileak daturen bat ezkututzen badu, horrek dirulaguntza itzultzeko eskatzea ekarri ahal izango du, bai eta kasuan-kasuan dagozkion berandutze-interesak ordaintzea ere.

Erakunde onuradunaren betetze-maila erabateko betetze-mailatik oso hurbil egongo balitz eta bere konpromisoak zalantzarik gabe beteko dituela egiaztatuko balu, benetan egin diren jardueren kostuak kontuan hartuta zehaztuko da zer zenbateko itzuli behar den, kasu bakoitzaren inguruabarrak aztertu ondoren.

Erakunde onuradunak gehiegizko finantzaketa itzuli beharko du, eta berandutze-interesak ordaindu, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat.

Gainera, beste dirulaguntza batzuei batuz gehiegizko finantzaketa lortzen bada jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du soberakin hori, eta berandutze-interesak ordaindu.

Gehiegizko finantzaketaren itzulketa erakunde emaileen alde egin behar da, bakoitzak emandako dirulaguntzen heinean.

1. Jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, eta dagokion berandutze-interesa eskatu beharko da, dirulaguntza ordaintzen denetik dirua itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da:

- a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak edo baldintzaren bat betetzen ez denean.
- b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren batean gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira ondorio guztietarako.

3. Itzultzeko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluaren eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluaren xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:



- a) Deialdian ezarritako epean dirulaguntza eman zen jarduketarako gastuaren xedapena betetzen ez bada, emandako dirulaguntza erabat galduko da.
- b) Dirulaguntza eman zeneko jarduketaren gastu partziala deialdian ezarritako epean erabiltzeak xedatu gabeko zatiari dagokion dirulaguntza galtzea ekarriko du, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jardueraren xedea lortzea eragozten ez badu.
- c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Hala ere, jarduketak epe orokorrean edo luzapen-epean amaitu ez badira, baina horietako zati bat epearen barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatia dirulaguntzaren zenbatekoa baino ez da itzuli beharko, baldin eta zati hori gauzatzek jarduketaren xedea lortzea eragozten ez badu.
- d) Ekintzak edo gastuak gauzatzean edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatuz gero itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-irizpidea hartuko da kontuan, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen ez diren erakundea eta maila kontuan hartuta.

5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan jasotako beste laguntza batzuekiko konkurrentziaren ondoriozko gainfinantzaketaren kasuan, gaindikinarekin zenbatekoa itzuli beharko da, eta horri dagokion berandutze-interesa aplikatuko zaio.
- e) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera finkatuko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantziaren eta interes publikorako duen kaltearen arabera.

25. oinarria. — Arau-haustea eta zehapenak

- 1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatutakoa izango da.
- 2. Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 61. artikuluan aipatzen den administrazio-prozedura zehatzailea ofizioz hasiko da, eta Euskal Herriko Administrazioen zigortzeko ahala arautzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legeak arautzen duena izango da, Foru Arau horretan eta Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan jasotako berezitasunekin.
- 3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legean), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da, aurrekoen aurka ez doan guztian.

26 oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Dirulaguntza ematen duten administrazio-organismoek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte lehia-araubidearen pean emandako dirulaguntzak, deialdia, programa eta egozten zaien aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako zenbatekoa eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak adierazita.

Dirulaguntzak ematea ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea honako kasu hauetan:

- a) Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, banaka hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean. Kasu horretan, oinarri arautzaileek beste prozedura batzuen erabilera aurreikusi beharko dute, baldin eta, haien ezaugarri berezien, zenbatekoaren eta kopuruaren arabera, onuradunen publizitatea bermatzen badute.
- b) Dirulaguntzaren xedea dela-eta onuradunaren datuak argitaratzea pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzearen eta babes-tearen aurkakoa denean, ohorerako, norberaren eta familiarren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko



1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta hori arautzen duen araudian aurreikusita dagoenean.

Onuradunek publizitate egokia eman beharko dute diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo jardueren finantzaketaren izaera publikoari buruz.

III. KAPITULUA

DEIALDIA

27. oinarria. — Eskabideak aurkezteko epea eta tokia

1. Eskabideak aurkezteko epea 2026eko otsailaren 16tik 2026eko irailaren 16ra bitartekoa izango da.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikulua betez, eskatzaile mota bakoitzerako ezarritako berrazko ereduak aurkeztu beharko dira eskabideak, eta ezetsiko dira betebeharrak hori bete ez dutenak.

Ereduak honako hauek izango dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri, bai izapidetze elektronikorako, bai deskargatzeko, aurrez aurreko aurkezpena onargarria denean:

- a) 5.1, a), b), c) eta d) oinarriko pertsona edo erakunde onuradunekin bat datozen eskatzaileentzat, NNP pertsonen zuzendutako inprimakia erabili beharko da.
- b) 5.1.e) oinarriko pertsona edo erakunde onuradunekin bat datozen eskatzaileentzat, eta 6.3 oinarrian ezarritakoa egiaztatzen bada, NNP EZ diren pertsonen zuzendutako inprimakia erabili beharko da.
3. Aurreko paragrafoan deskribatutako eskabideak toki hauetan aurkeztu ahal izango dira:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, www.ebizkaia.eus web orriaren bidez.
 - b) Aurrez aurre, leku hauetan:
 1. Ustategiaren kokapenari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo Herritarrei Arreta emateko Bulegoan.
 2. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Landa garapenerako Zerbitzuko Erregistroan (Agirre Lehendakaria, 9.; 2.a, 48014-Bilbo), astelehenetik ostiralera, 8:30-13:30.
 3. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren Erregistroan (Rekalde zum. 30, 3.a, 48009-Bilbo), erregistro horren funtzionamendu-orduetan (8:30-13:30, astelehenetik ostiralera).
 4. Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusian (Diputazio kalea 7, etxab., Foru Liburutegiko kristalezko eraikina, Foru Jauregiaren atzealdea, 48009-Bilbo), 8:30-13:30e, astelehenetik ostiralera, eta 16:00-17:30, astelehenetik ostegunera.

Aurreko guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren dokumentuen erregistro elektroniko orokorrari buruzko otsailaren 4ko 6/2020 Foru Dekretuan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako aurkezpen-bitartekoak erabili ahal izango dira.

Eskaera posta-bulegoan aurkeztuz gero, Posta Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Horren arabera, eskabideak gutun-azal irekian aurkeztuko dira, bidali nahi den dokumentuaren lehen orriaren goiburuan argi eta garbi jasota gera daitezen bulegoaren izena eta data, tokia, ordua eta onarpen-minutua. Onartu izanaren frogagiria jaso beharko dira inguruabar horiek.



Aurreko paragrafoan adierazitakoari dagokionez, honako hau hartu behar da kontuan:

Aurkeztutako eskabidean ez bada jaso posta-bulegoak noiz eta non onartu dituen, Bizkaiko Foru Aldundiko edozein erregistrotan eskabidea sartu den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat ondorio guztietarako.

2025eko urriaren 15a baino geroago eta laguntza eskatzen hasi arte egindako inbertsio-eskaerak onartu ahal izango dira, betiere Natura Ingurunearen eta Nekazaritzaren Departamentuko Landa Garapeneko Zerbitzuari alde aurreko idatzizko baimena eskatu bazaio inbertsio horiek egiteko.

4. Titular onuradun eta nekazaritzako ustiategi bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da izapidetzeko, eskabide-aldi osoan.

Eskabideak izapidetzen diren bitartean, laguntzaren xede den nekazaritza-ustiategiaren titulartasuna aldatzen bada, titular berriak Landa Garapeneko Zerbitzuari eskatu beharko dio eskabidean subrogatzeko, bai eta laguntza ematerakoan ere. Laguntza hori emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen ez badira, eman ahal izango da. Subrogazio-kasuetan, diruz lagundutako inbertsioak subrogatutako pertsonak benetan egindakoak izan beharko dira. Arau hori ez da aplikatuko eskatzailearen nortasun juridikoa aldatzearen ondoriozko subrogazio-kasuetan; kasu horietan, inguruabar zehatzak aztertu beharko dira.

28. oinarria. — Aurkeztu beharreko agiriak

Eskaeraren izaeraren arabera, honako dokumentazio espezifiko hau erantsiko zaio eskabideari:

- a) Egin beharreko inbertsioak deskribatzen dituen memoria.
- b) Ondasun higiezinak edo berotegiak eraiki, eskuratu, handitu edo hobetzeko obretarako:
 - 1) Udal lizentzia / Udalaren berariazko ebazpena.
 - 2) Proiektu teknikoa edo memoria baloratua.
 - 3) URAREN lizentzia (beharrezkoa bada).
- c) Lurzorua erabilera aldatu beharra duten instalazio, plantazio edo finkak hobetzeko, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren baimena aurkeztu beharko da. Seguru asko baimena beharrezkoa izango ez den kasuan, organo eskudunari egindako kontsulta eta hark emandako ebazpena aurkeztu beharko dira.
- d) Beharrezkoak diren proformako fakturak edo aurrekontuak, foru dekretu honen 19. oinarrian jasotako xehetasunaren arabera.
- e) Bankuko helbideratze-fitxa (eskatzaile berriek bakarrik).
- f) Guztira 100.000 eurotik gorako inbertsio-proiektuetarako, proiektatutako inbertsioen azterketa aurkeztu beharko da, teknikari homologatu batek idatzia.
- g) Inbertsioak onuradunaren titulartasunekoak ez diren lurretan egiten direnean, eskatzaileak duen erabilera-eskubideari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da. Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak hala irizten dionean, egoera hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatuko du.
- h) Mahasti-landaketa berrien kasuan, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Nekazaritza Zerbitzuaren bidez egiaztatuko da dokumentazio hau aurkeztu dela:
 - 1) Landaketa berrien baimenak emateko jadaneko ebazpena.
 - 2) Mahasti-landaketa berria egiteko baimena onesteko Bizkaiko Foru Aldundiaren jadaneko foru-agindua.

**29. oinarria. — Eskabidea zuzentzea**

1. Aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasun-faltaren bat dagoela ikusten bada, edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badira, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren. Hasierako eskabidearen edukia aldatzen duen dokumentazioa ez da zuzenketa gisa onartuko.

2. Eskaera bat ezesten bada eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztu ez delako edo eskatutako baldintzak betetzen ez direlako, beste eskabide bat egin ahal izango da eskabide-aldiaren barruan, onartua izateko behar den dokumentazio guztia edo ezarritako baldintzak betetzen dituen.

Eskaera egin ondoren, ezinezkoa izango da eskatutako inbertsio-proiektua aldatzen duen aldaketarik egitea. Hala ere, deialdian ezarritako epearen barruan, beste eskabide bat aurkeztu ahal izango du eta lehenengoan atzera egin.

3. Jarduneko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan aipatzen diren subjektuetako batek eskabidea aurrez aurre aurkeztu badu, administrazio publikoek interesdunari eskatuko diote zuzenketa elektronikoki aurkezteko. Ondorio horietarako, zuzenketa egin den eguna hartuko da eskaera aurkezteko datatzat.

4. Nolanahi ere, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta/edo informazio guztia eskatu ahal izango zaio eskatzaileari. Arau honetan aurreikusten ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoa aplikatuko da.

30. oinarria. — Aurrekontuko diru-izendapena

Foru Dekretu honen arabera eman daitezkeen dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du inolaz ere gainditu 2007/0604 P.A.S.A. Proiektuko 414.104 Landa Garapenerako aurrekontu-programan (02 Atala, 743.00, 749.00 eta 769.00 kontzeptuak) ekitaldi ekonomiko bakoitzerako zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa, ez eta hura eguneratzearen ondoriozkoak ere, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira.

5.948.000 euroko guztizko aurrekontu-kontsignazioa ezarri da, deialdi honetako laguntza-lerroen arabera banatuta, honako urteko eta aurrekontu-partida hauetan:

Bideratutako dirulaguntzak:

1. 5. oinarriko a), b), c), d) eta e) apartatuetan definitutako pertsona edo erakunde onuradunak:

— 743.00/414104/02.02 partida: 750.000 euro.

• 2026. urtea: 700.000 euro.

• 2027. urtea: 50.000 euro.

— 749.00/414104/02.02 partida: 1.950.000 euro.

• 2026. urtea: 1.800.000 euro.

• 2027. urtea: 150.000 euro.

— 769.00/414104/02.02 partida: 2.348.000 euro.

• 2026. urtea: 2.098.000 euro.

• 2027. urtea: 250.000 euro.

Bideratutako dirulaguntzak:

2. 5. oinarriko f) apartatuan definitutako pertsona edo erakunde onuradunak:

— 743.00/414104/02.02 partida: 200.000 euro.

• 2026. urtea: 150.000 euro.

• 2027. urtea: 50.000 euro.



- 749.00/414104/02.02 partida: 100.000 euro.
 - 2026. urtea: 50.000 euro.
 - 2027. urtea: 50.000 euro.
- 769.00/414104/02.02: 600.000 euro.
 - 2026. urtea: 500.000 euro.
 - 2027. urtea: 100.000 euro.

Hala ere, ebatzitako eskabideak kontuan hartuta, eta pertsona eta erakunde onuradunak era askotakoak izan daitezkeenez, foru dekretu honen bidez ezarritako diru-izen-dapenak foru dekretu honetan adierazten diren partiden artean banatu ahal izango dira, foru agindu bidez eta eskatzailearen izaeraren arabera ezarritako bi ildoen artean ere (NNP edo ez NNP).

Bestalde, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren kreditu erabilgarriak badago eta kreditu hori lehen deialdi honetan agortu ez bada, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatuari beste deialdi bat egiteko ahalmena ematen zaio.

Indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, deialdi honetan aplikatzeko zenbateko gehigarriak izango dira Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua aplikatuz erabilgarri dauden kredituak, gehienez 3.000.000 euroko zenbatekora arte. Foru agindu bidez, erabilgarri dauden kredituen adierazpena eta haien behin betiko banaketa argitaratuko dira. Halere, horrek ez du ekarriko eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik.

Geroago kreditu-handitzerik gertatuz gero, handitze horiek dirulaguntzaren emakidari buruzko ebazpen berriak onesteko aukera emango dute, non jasoko diren baldintza guztiak bete arren kreditua amaitu dela eta onuradun suertatu ez diren eskaerak, 11. oinarrian aurreikusten diren kasuetan.